

“Gehiegizko babesa” saihesteko estrategiak

Seme-alaben heziketaz eta hazkuntzaz arduratzen diren gurasoak, seme-alaben oinarrizko beharrianak asetzeaz gain (elikadura, garbitasuna, janzkera...), beraien garapenerako garrantzitsuak diren beharrianak ere asetzen ahalegintzen dira, esaterako: eskolako hezkuntza, beste helduekin edo berdinekin duten harremana,... etab.

Gurasoek, beraien seme-alabei, beharrian horiei erantzuteko laguntza edo babesa eskaintzen dieten heinean, gurasoen funtzioak betetzen ari diren edo ez esan daiteke, hau da, seme-alabei gehiegizko babesa ematen dieten edo, kontra, beharrezkoa duten laguntza bermatzen ez duten.

Gurasoek, beraien seme-alabak sufritzeko duten beldurrarengatik edo, gehiegizko laguntza eta babesa ematen diete eta ondorioz, lortu nahi denaren kontrako efektua lortzen da. Jarrera horrek, haurrek, helburuak beraien kabuz lortzeko dituzten gaitasunak ez baloratzea eragin dezake. Izan ere, egunero ikusten dute gurasoek, beraien beharrianak (laguntasunekin, eskolan, etab.) soberan betetzen dituztela.

Gurasoengatik “gehiegi babestuta” dauden haurren ezaugarriak, honako hauek dira:

- Lotsatiak dira.
- Zaila egiten zaie gurasoen aldamenetik urruntzea.
- Besteekiko harremanetan eta egiten duten gauzetan segurtasun eza azaltzen dute.
- Inguruan dituzten pertsonen babesa bilatzen dute.
- Urduri eta bakarti azaltzen dira, zaila egiten zaielako adin bereko lagunekin egotea.
- Eskolan zailtasunak izan ditzakete.
- Gutxitan onartzen dituzte egin dituzten ekintzen erantzukizuna. Gehiegi babestutako haurren erantzukizun hori gurasoek hartzen ohi dituzte eta horretara ohituta daude; gainera, gurasoek aitzakiak jartzen dituzte haurra babesteko.

“Gehiegizko babesa” saihesteko jarraibide praktikoak:

- Haurrak laguntza eskatzen duenean, bere bitarteko propioekin konpontzeko aholkuak eman.

- Ez zaitetze akatsei aurreratu, haiek saihesteko asmoz. Bion artean gertatutakoa aztertu, hau da, modu egokian egin denaren eta hobetu daitekeenaren inguruan hausnartu.
- Laguntzarik behar badu, bere benetako eskaria zein den aztertu. Baliteke berak eskatutakoa, eskaintzera joan zareten babesarekin bat ez egitea.
- Bakarrik konpon dadila utzi, gauzak egiten denbora dezente ematen badu ere.
- Bete beharko dituen ardura txikiak eman, gerora, nagusi baten presentziarik gabe horiek betetzea izango da helburua (jostailuak batzea, arropa otzaran sartzea...).
- Lagundu seme-alabari bere adinekoen artean harreman sozialak izan ditzan, familia testuingurutik at dagoen testuinguru batean bere garapen pertsonala indartzeko helburuarekin.
- Egoera beldurgarri baten aurrean, egoera bera saihestu ordez, gertatuko denaz hitz egin eta babesa eskaini. Modu honetan, bere antsietatea murriztuko da.
- Errealak diren arriskuetatik babestu, beldurtia izango den pertsona bat bilakatu gabe (ez hartu muturreko jarrerarik).

Laburpena

Seme-alaben zaintzan garrantzitsua da gurasoek haurren autonomia indartzea, egiten dutena gainbegiratzuz baina esku hartu gabe; modu horretan, hurrek segurtasunez arakutzen ikasiko dute. Finean, zaintza orekatu bat bermatu behar zaie, afektua eta exijentzia, maila berean kokatuz. Horren helburua, seme-alabei beraiek nahiz besteek egiten dutenarenganako errespetua azaltzea da.

Ainhoa Manzano Fernandez Doktorea
 Juan Luis Martin Ayala Doktorea
 ETXADI
 Familia-Psikologia Unibertsitate-zentroa
 Centro Universitario de Psicología de la Familia